

I. ERANSKINA – DBE-EPO ESKAERA
DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Indarrean sartzeko data: 2018/10/01

Or. 1etik 1

Honen bidez jakinarazten dizugu, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean jasotzen diren xedapenen babespean, **prestazioaren eskatzaileak lege horretan jasotzen diren betekizunak betetzen dituen egiaztatzeko behar diren datu pertsonalak eta diru-sarrerak bermatzeko errenta eta, hala badagokio, etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea aitortzeko, jarraitzeko eta kontrolatzeko behar diren datu pertsonalak** eskuratu ahalko dituela LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak gaien eskudunak diren administrazio edo bestelako erakunde publiko eta pribatuetatik, zuzenean edota bitarteko telematikoen bidez, datuak egiaztatzeko zerbitzuaren bitartez.

Ez da inoiz eskatuko **prestazioaren eskatzaileak edo onuradunak legez ezarritako betekizunak betetzen dituen** egiaztatzeko behar-beharrezkoa ez den daturik.

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna	<p>LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzua</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jose Atxotegi 1, PK: 01009. Vitoria-Gasteiz (Araba). - Tel: 945 160 600 / 630 305 452. - Posta elektronikoko helbidea: soportelopd@lanbide.eus www.lanbide.euskadi.eus <p>Eusko Jaurlaritzako Datuen Babeserako ordezkariaren kontaktua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - dpd-dbo@euskadi.eus - Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Helburua	DSBE/EPO prestazioak kudeatzea eta izapidetzea.
Datuen kategoria	Datuak interesdunarengandik berarengandik eta gaien eskumena duten administrazioetatik datoz. Honako hauek dira tratamenduaren xede diren datuen kategoriak: identifikaziorako datuak; ezaugarri pertsonalen datuak; gizarte-inguruabarren datuak; datu akademikoak/profesionalak; enpleguaren xehetasunak; datu ekonomikoak/finantzarioak; arau-hausteei eta zigorrei buruzko datuak eta berziki babestutako datuak (zehazki, osasunaren ingurukoak eta etxeko indarkeriaren biktima-egoeraren ingurukoak).
Kontserbazio-aldia	Iraungitze-ebazpena irmoa egiten denetik zenbatzen hasita, bost urtera garbituko dira amaitutako espedienteak. Indarreko espedienteen irteera-dokumentazioa (administrazioak egindako) iraunkorki kontserbatuko da. Sarrera-dokumentazioa (herritarrek emandakoa) aurkezten denetik zortzi urtera garbitu ahalko da.
Tratamenduaren legitimazioa	Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.c) artikulua, LANBIDERI aplikatu ahal zaizkion legezko betebeharrak: 4/2011 Legea, azaroaren 24koa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzekoa.
Lagapenen hartzaileak	Hartzaile hauei egingo zaizkie lagapenak, dagokion lege-baimenarekin: <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroa - EAeko udaletako oinarritzko gizarte-zerbitzuak - Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa - Prestazioak: espedienteen kontsulta - Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila: atxikidura-laguntzak (ordainketa partekatua) - Foru-aldundiak - Ogasuna: DSBEren titular eta onuradun aktiboak (190 eredu) - Polizia: agindu judizialengatiko eskaerak - Epaitegiak
Eskubideak	Datuak begiratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubidea daukazu. Tratamenduaren arduradunaren aurrean edo Datuen Babeserako ordezkariaren aurrean erabili ditzakezu eskubideok, eta erreklamazioa jar dezakezu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.